

169. FITXA GIPUZKOA – Kostaldeko udalei Gipuzkoako hondartzen kudeaketa integrala helburu duten jarduketak egiteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: 25.000 biztanletik beherako kostaldeko udalerriak: Mutrikuko, Debako, Zumaiaiko, Getariako, Zarauzko, Orioko eta Hondarribiko Udalak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren iragarkia, 2025eko irailaren 11koa](#)

Eremuak: Jasangarritasuna

Zenbatekoa: 700.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/09

Laburpena

Deialdi honen xedea da 25.000 biztanletik beherako kostaldeko udalerrietako udalei dirulaguntzak ematea, **hondartzen kudeaketa integrala** helburu duten jarduketetarako.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Honako hauek dira diruz lagunduko dira jarduketak:

- 1.— Garbiketa eta hondakinen kudeaketa.
 - a. Hondartzen eta eragindako inguruneen garbiketa.
 - b. Hondakinen kudeaketa (garraioa eta azken kudeaketa).
 - c. Hondartzen egokitza pen morfologikoa.
- 2.— Salbamendu- eta sorospen-zerbitzuaren kudeaketa.
 - a. Zerbitzua kontratatzea.
 - b. Salbamendu- eta sorospen-zerbitzuetarako eraikinak eta instalazioak.
 - c. Komunikazioa.
 - d. Jardueren koordinazioa.
- 3.— Azpiegitura eta ekipamenduak.

- a. Hondartzetako mugaketen, erreserben, atxikipenen, baimenen eta emakiden kontrola eta jarraipena.
 - b. Hornidura-sareen eta tasen kudeaketa (energia eta edateko ura).
- 4.— Informazio eta sentsibilizazio zerbitzuak.
 - 5.— Agenteen plangintza eta koordinazioa.
 - 6.— Kalitate eta ingurumen ziurtagiriak.
 - 7.— Beste inbertsio eta gastu batzuk.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntza jasoko bada, jarduketak hasi gabe egon behar du **2025eko urtarrilaren 1ean**, eta jarduera gauzatzeko eta justifikatzeko epea **2025eko urriaren 31n** amaituko da.